

## Artisaua, baina ez artista

Mikel Lizarragari  
galde eginez ▶ 2-3



# Eguraldia kaskarra bai, baina giroa ezin hobea atzo Tolosa Kup festan

**PARTIDUA** ▶ Ibartarrek  
astindu ederra eman  
zieten Tolosakoei futbol  
partidua 7-1 irabazita

**GIROA** ▶ 400 bat lagun  
bildu ziren Plaza Berrian  
bazkaltzeko; herriko DJek  
jardun zuten ondoren ▶ 7



Tolosa Kup festan lagun ugari bildu ziren atzo; argazkian, gazte batzuk token jokatzeko. DANI GIBELALDE



## «Herritarren borondatea» errespetatzea eskatu dute

**LIZARTZA** ▶ Maiatzeko udal hauteskunde  
urteurren bezperatan, eskualdeko ezker  
abertzaleko hautetsiek salaketa egin dute ▶ 6

**UDAKO ESKAINTZA**

**Klaseak 12€**

**ARALAR**

Informazio gehiago  
autoeskolan

Urdaneta, 28 • ORDIZIA  
Tel.: 943 88 16 51

**LANDARRI, S.L.**  
Hilerrien ustiapena eta kudeaketa

**Kanposantuko Lanak**

- Ehorzketak
- Lurpetik ateratzea
- Gerakinen lekualdatzea
- Gerakinen errausketa
- Errausketa zerbitzua
- Hilerriarren proiektuak
- Hilerriarren eraldaketak
- Eraikuntza ezberdinak
- Hilobien apainketa
- Hilariak
- Panteoiak
- Hilobiak
- Estelak
- Fotozeramikak
- Estanpaziozko teknikak

Santa klara, 1 behea - 20400 TOLOSA  
Tel.: 943 67 01 14 - Fax: 943 34 04 67 • Zerbitzu iraukorra: 610 552 552  
posta elektronikoa: landarris.l@terra.es



**TOLOSALDEA**  
GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA

- Lanbide Heziketako Ikerketa eta Berrikuntzarako Institutua
- 2001ean, Eusko Jaularitzako Zilarrezko "Q" saria
- 6 urtez, ISO 9002 ziurtagiriarekin

**Goi-mailako zikloak: Euskaraz**

- Mekanizazio Bidezko Produktzioa
- Eraikin eta Prozesu-Instalazioen Mantenimendua eta Jartzea
- Metal-Eraikuntza
- Erregulazio eta Kontrol-Sistema Automatikoak
- Administrazio eta Finantzak
- Informatika- Sistemen Administrazioa

**IZEN EMATEAK / AURREMATRIKULA:**  
EKAINAREN 1etik 9ra



Tfno.: 943 65 11 47 / 943 65 06 64  
Fax: 943 65 18 56  
idazkaritza@tolosaldea.com  
www.tolosaldea.com  
Santa Luzia, 17 • 20400 TOLOSA



UZZURRETIK ▶  
EKAIN GARMENDIA

## Peter Pan

Talde txiki baten partaide sentitzen naiz azkenaldian, zer egin ez dakitela dabiltzanen taldeko partaide. Kasualitatea (edo adina) izango da, baina bidegurutzet batean dagoen jende andana bat aurkitzen dut aspaldi bidean, nora jo aukeratu beharrean daudela. Izan ere, hogeita piko urterekin, eta ikasketak amaitu berrikan, badirudi izango garenen euskarriak ezarri beharrean gaudela, eta horrelakoetan zaila izaten da aukeratzeara. Eta, gauza kuriosoa, talde indeziso honetatik kanpo daudenek beti izaten dute esan edo gomentatzeko zer edo zer.

Batzuek (edadetuak edota pragmatikoak normalean) inkonprensiuz begiratzen digute. Lehenago itxita zituzten atek irekita omen ditugu, eta ez omen dute hainbeste pesimismoren arrazoia ulertzen gure bizitzaz nahi duguna egiteko askatasun osoa dugunean. Hainbeste urterri buruz erabaki beharra nahikoa kate ez balitz bezala. Bide posible guztiak muturren aurrean omen ditugu, baina ez dugu gure burua oso eroso aurkitzen bizimoduaren supermerkaturan. Eta, momentu batez, inoiz egon den umerik kapritxosoena garelako sentitzen dugu.

Beste batzuek (jipi edota frustratuak ia beti) abenturara animatzen gaituzte. Bizitza bat bakarria dela diote, arriskatzeko, ez saltzeko gure ametsak hain prezio merkean, eta ateratzeko euriperan. Baina guri ez zaigu inoiz zorianaren eta frakasoaren dardoekin jokatzeko gustatu. Eta dagoen banku langilerik konformistena izango bagina bezala sentitzen gara.

Eta honek guztiak emaitza bereraren ohi gaitu: erabakitzea baztertu eta aurrera pauso bat ematea ukatzera. Atzera egitearekin amesten dugu, eta litekeenaren eta jada ez denaren arteko terreno mortuan gelditzen gara, hazi nahi ez duten umeak baikin. Eta hori, aurpegikera estupidoko Peter Pan bezala aurkitzen ditudala azkenaldian kaleak, besterik ez.



## 3.300 lagun inguruk eguzkipean egindako ibilaldia

**XIV ORDUKO IBILALDIA** ▶ Ez zirudien bezperan Tolosatik San Miguelerako bideak lokatz arrastorik izango ez zuenik, eta ez zen erabat hala izan, baina eguzkia erruz agertu zen mendi aldean. XIV Orduko Ibilaldian parte hartu zuten ia 3.300 lagunek eskertu zuten astebeite lehenago Aralarko Adiskideak elkarteko kideek Santa Klara komentura arrautz dozena eraman izana, edo, besterik gabe, euria kolpetik geratzea. Kontua da, giro apartean

egin zutela parte-hartzaileek ibilaldia, eta, antolatzaileen harridurarako, aurreikusitakoa baino ordu pare bat lehenago hasi zirela asko eta asko helmugara iristen. Gehienek Berazubiri zituzten senitaratekoak eta lagunak ordurako zain, eta martxako antolatzaileek banatutako diplomak eskuan itzuli zirenekin txerera mendizaleak —argazkian, Berazubi—. XIV Orduko Ibilaldiaren hurrengo edizioerik bada, lau urte barru izango da. I. ETXEBESTE

MIKEL LIZARRAGA ▶ ARTISAUUA

## «Ttikitatik argi nuen zein lan egin nahi nuen; hamahiru urterekin hasi nintzen»

Leitzako gazte honek bere afizioa du ofizio, lanbide; artisaua da. Eta orain Zarautz eta Aldatz artean, bidean, bizi da, baina ez du jaioterritik igarotzeko aukerarik galtzen

JAIONE ASTIBIA

Mikel Lizarragak bere Aldatzeko tailerlean hartu gaitu, hantxe egiten baitu lan. Tailer ataririk aurrez aurre, Mailloak ditu ikusgai. Larraungo herri polit honen hesi natural bezain maldataksuak. Horrelako ikuskizunekin ez zaio etorririk faltako. **Artisau, eskulturgile, nola ikusten zara?**

Artisek barrenean daukatena adierazpenekin egiten dute lan. Artisauak berriz, egun erabiltzen diren edo garai batean lan-tresna zirenekin, nahiz eta horietako asko gaur egun dekoraziorako izaten diren. Armariak egiterakoan zure ukitua emateko aukera gutxi dituzu, baina, aldiz, erliebe bat

egiterakoan-edo errazagoa da. Artisauak formato batekin jokatzen du eta horri ukitua ematen saiatu. Ni artisaua naiz.

**Ttikitandikoa da edo gerora sortutako zaletasuna?**

Ez, ez. Ttikitatik argi nuen zein lan egin nahi nuen. Hamahiru urterekin hasi nintzen jada, keramika ikasten lanbide honetan has-teko eta orain eskertzekoa ere bada.

**Baina zuk arlo honetako ikasketak ere egin zenituen bada?**

Bai, Deban egin nituen hiru urte, eta, gero, Eibarko oso ona zen tailista batekin ikasi nuen.

Dena dela, lan eginez ikasten da gehien. Hasieratik hartu nituen konpromisoko lanak, propio, ikasteko. Hori bai, beti teknika ezagutzeko, esperientziak trukatzeko-eta interesgarri izaten da maisu on batekin aritzea, baina...

**Material mota guztiekin aritzen zara? Zein duzu gustukoa?**

Egurra eta harriarekin aritzen naiz gehientsuen. Orain, gustukoena, keramikarekin aritzea da, oso lasaigarria da, ez da hautsik sortzen, soinurik ez da ateratzen. Orain baditut enkar-gu batzuk eta horretan berriz hasia naiz.

**Zura edo harri puska bat hartu eta berak erakusten dizu ondorengo lanaren berri, edo**

**hartu eta mailukadaka nahi duzuna lortzen duzu?**

Gehienbat enkar-guz ari naiz orain eta aukera gutxi dit ne-re kabuz aritzeko. Lan pertsonalagoekin, ideia aurrena buztinean atera eta handik moldatzen da beste materiala. Horrelako lanetan asko gozatzen dut. **Artelan hauetatik bizi daiteke?**

Oso zaila da honetatik bizitzea, batez ere egungo gizartearen joera kontsumitzailea eta materialista ikusten badugu: zeinek baino zeinek handiagoa eta garestiagoa eta gehiago hobe. Artelanetatik bizia ateratzea oso zaila da, hori batzuren ohorea bakarria da, oso jende onarena. Artisautzan, berriz, lanen araberakoa da.

**Erakusketaren bat antolatu duzu zure lanekin?**

Ez, baina noizbait gustatuko litzaidake egitea. Ferietan-eta ibili izan naiz, baina oso arriskutsua da, garraioan piezak hautsi baitaitezke eta ordu askotako lana eta nekea pikutara joan. Dena den, tailerlean aritzea gustukoagoa dut.

**Zein da bereziki egindako lanetatik gusturena gelditu zarena?**

Duela urte pare bat keramikazko irudi kozkor bat egin nuen. Itxura ematea eta buztinarekin aritzea gure esku dago, baina gero, pieza labean sartzen de-



**ANTTON BANDRES**  
EUSKAL MENDI F. LEHENDAKARI

«Uzturrera bat edo bi joaten ziren garai batean, orain ausalo; superfrequentazioa sortu da azkenaldian»



**J. GOIKOETXEA 'BOLI'**  
MENDIZALEA

«Oxigenorik gabe egin nahi nuen Everesteko tontorra; eguraldiak ez zuen, ordea, lagundu»

**IRITZIA ▶ IBAN ORTIZ (TOLOSA BIZIRIK-EKO UDAL HAUTETSIA)**

Noiz arte?

**G**ezurra dirudi, baina zein azkar pasatzen den denbora. Jada urtebete igaro da 2003ko maiatzaren 25eko udal hauteskundeak izan zirenetik eta zenbat gauza gertatu eta aldatu dira ordutik gaur egun arte. Zenbat gauza! Azkenetarikoa behintzat, eduki duen oihartzunagatik, Madrileko gertaera lazgarria. Zer eragina izan duen estatu espainoleko panorama politikoan ikustea besterik ez dago. Zein azkar igarotzen den denbora eta zenbat aldaketa gertatzen diren hain azkar igarotzen den denbora horretan, baina hala eta guztiz ere, badira zenbat gauza denbora igaro arren oraindik bere baitan jarraitzen dutenak, aldatzen ez direnak.

Ene ustetan, 2003ko maiatzaren 25a, Euskal Herriaren historia garaikidean demokraziaren egunik ilun eta tristeenatariko bat izan zen. Ehunka herri kandidatura legez kanpo utzi ondoren, milaka euskal herritarren ahotsa isildu nahi izan zen duela urtebete egin ziren udal hauteskundeetan. Jada urtebete pasatu da eta egun hartan herriari egin zitzaion iruzurrak indarrean jarraitzen du gaur egun ere. Milaka dira, egun hartan iritzia eman, eta bere erabakia, beste behin ere, erres-

petatua ikusi ez zuten herritarrek, hurrenez hurren 2.500 tolosar. Gaur da eguna, urtebete pasa ondoren, eta hainbatek herri honentzat aldaketa handiak eman direla aldarrikatzen duen arren, iruzur hark ehunka udaletxetan indarrean jarraitzen duena, eta noski, baita Tolosako Udalaren kasuan ere.

Izan ere, egungo Tolosako udal gobernuak ez du Tolosako herritar guztien aniztasuna ez eta iritzia ordezkatzen. Ez dugu ahaztu behar azken udal hauteskundeetan Tolosa Bizirik herri plataformak 2.500 bozka inguru jaso ondoren, beren ordezkari-zinegotziak ez gaudela udaletxean, honek garbiki erakusten duelarik Tolosako hiritarren laurdenaren bazterketa, eta larriagoa dena, herriaren borondatea ez onartzea eta errespetatzea, beren botoak baztertuak izan diren artean irainduak izanaren sentimendua sorraraziz. Azken urte honetan zehar Tolosako udalbatzako 5 zinegotzik, EAJ-PNVko 2k, EAko 1ek, PSOEko 1ek eta azkenik PPko 1ek, legitimoki ez dagokien kargua hartu dute eta berau erabiltzen ari dira inongo lotsa zantzurik gabe. Okupatu dituzten kargu eta eserlekuak ez dagozkie, lapurtu, bai lapurtu egin dizki-

gute, beraien herriarrek ez dutelako inongo konfiantzarik jarri ez eta beraien aldeko bozkarik eman.

Hau guztiagatik, Tolosako herriak bozka bidez adierazitako hitza eta erabakia errespetatua izatea nahiko nuke, bozka bidez adierazitako herriaren borondate zilegia errespetatua izan dadin eta udalak tolosar guztien etxea izaten jarrai dezan, baina ez hemendik beste urtebete edo bi urteetara.

Eskubide zibil eta politikoak desagertarazi eta *apartheid* politiko gordina ezarri zenetik jada urtebete igaro da. Gauzak aldatzen direla, baina, legalitatearen aitakipean, frankismoaren erreforma burutu zuten faxista berberak, gaur egun ere, Madrilen egindako 'legea' erabiltzen dute Euskal Herria Espainiako estatua- ren baitan preso mantentzeko, herriari borondatea adierazteko bideak ukatzeko, egunkariak ixteko, hizkuntz eskubi- deak zanpatzeko, herriaren ahotsa isilarazteko...

Arestian aipatu bezala, gezurra dirudi baina jada urtebete pasatu dela iruzurra gauzatu zenetik, eta oraindik badira hainbat gauza denbora igaro arren aldatzen ez direnak. Noiz arte?



**PERTSONALKI ▶**

▶ Leitzan jaioa ▶ 1968ko uztailaren 9an ▶ Seme baten aita eta Zarautzen bizi da neskalagunarekin ▶ Aldatzen du tailerra

**Gustoko jakia?** Banabarrak. **Zaletasuna?** Bidaiatzea. **Herrialde bat?** Madagaskar ikustera joan nintzateke eta han bizitzeko modukoa, Kreta iruditu zitzaidan. **Txoko bat?** Iturrizarrea. **Musika talde edo kantari bat?** Itoitz lehen eta orain Benito, Alfa Blondi. **Pesta egun bat?** San Juan Bezperako gaua.

**ARTISAUTZA**

«Oso zaila da honetatik bizitzea, batez ere egungo gizartearen joera materialista eta kontsumitzailea ikusita»



nean, hor nahiz eta kontu handiz ibili eta ustez tenperatura eta azkartasun egokiak eta aukeratu, labetik atera arte ez da jakiten emaitza zein izaten den. Eta irudi harekin, dena ongi atera zitzaidan. Goizuetarako egin nuen erliebe batekin ere, bi anaiei, pilotariei egindakoarekin, antza emateko moduan utzi nituen eta nonbait hor!  
**Eta ez hain konforme gelditu zarenen bat?**  
Normalean gustura gelditzen naiz. Behin pieza bat hautsi nuen baina...  
**Eta berezirik?**  
Gogoan dudala, oraintsu Igaratzen jarri dugun orientazio-ha-

ria. Keramikazko 12 puskatan eraman genuen hara eta han muntatu behar izan genuen, joserka mosaiko moduko keramikazko puska ttikiekien eginenez. Egund hartan, gainera, ikaragarritzko hotza egiten zuen eta eskuak ozipinduta aritu ginen lanean.

**Zein edo zer modelatuko zenuke kiski-kaska?**

Gaitasuna izanez gero, Euskal Herrian bizi dugun egoera hau bera moldatuko nuke.

**Eta zein edo zer txikituko zenuke dinbi-danba?**

Hara, egoera honi, su honi, kanpotik egurra botatzen ari direnak.

JAIONE ASTIBIA

## GIZARTEA ▶

IÑIGO TERRADILLOS

**G**izakiak eta animaliak desberdintzen dituen ezaugarrietako bat barre egitea da. Berezko dugun funtzio biologiko bat da, zaharrago garen neurrian gero eta gutxiago egiten badugu ere. Barre-algara bezain ekintza lasaigarri eta onuragarriak gutxi dira, une dibertigarria izateaz gainera, mesede egiten baitu gorputzean, buruan eta aldarrean. Gaurko gizarteak dituen estresa, depresioa, urduritasuna, inkomunikazioa, bakardadea, desoreka, nagitasuna eta horrelako beste asko desagertzeko tresna paregabea da. Zoriontsu izaten eta bizitzako momentu zailenei aurre egiten laguntzen digu barreak.

Helburu honekin hasi zen duela hamabi urte Bharat Martin barrearen munduari buruz zerbait gehiago jakin nahian. Extremadurakoa (Espainia) jaiotzez, sei urte zituela etorri zen Euskal Herrira eta egun Zumarragan bizi da Martin. Bera, une horretan, depresio batean murgildurik zegoen eta terapia desberdinak probatu ondoren, barrearena aztertzen hasi zen eta bizitzaren aurrean jarrera baikorra izateak asko lagundu zuen. Barrearen terapiaren inguruan ikasten ibili ondoren, Tolosan egoitza duen eta duela lau urte eskola ere baden Barrearen Tailerra sortu, eta jendearekin lanean hasi zen alaitasuna eta barrea zabalduz. Egoitza Tolosan izan arren, Espainia osoa zeharkatu duela dio eta 2.000 pertsona baino gehiagok probatu duela terapia.

Talde dinamikak, ariketak, erlaxazioa, animazioa eta jokoa, gorputz-espresioa, musika eta komunikazioaren bidez pertsona talde batengan benetak algarak sortzen dira eta horrela, zentzuak esnatu, autoestimua handitu eta poztasuna eta barne irribarrea pizten dira; horretarako, hitzaldiak, tailerrak, mintegiak eta ikastaro trinkoak antolatzen dituzte.

Saioak alderdi teoriko bat du, jendeari barreak dakartzion onurei buruz hitz egiteko; alderdi praktikoa, berriz, barrea eragiteak, kontaktu fisikoak, pentsamendu positiboa eta umore ona zabaltzeko eta talde jokoak osatzen dute, besteak beste. Saio bakoitzak gutxienez



Kontaktu fisikoaren garrantzia azpimarratzen dute barrearen tailerreko irakasleek. HITZA

## Barrea eragitea gauza serioa da

Barrearen Tailerrak Tolosan du egoitza eta duela lau urtetik eskolak ere ematen dira bertan: 120 orduko ikastaroak dira

bi orduko iraupena izaten du eta asteburu osoak ere antolatzen ditu Barrearen Tailerrak.

### Tailerrak nonahi

Elkarteetan, udaletxeetan, terapia zentroetan, ospitaleetan, eskoletan, unibertsitateetan eta enpresetan antolatzen dituzte, eta herri desberdinetara ere eramaten dute tailerra. Enpresetan, taldea osatu eta barrearen terapia probatu ondoren, alde handia nabaritzen dela beraien lan egiteko moduan dio Martinek; alaitasuna eta umore ona langileen artean zabaldu eta gero, lan egiteko motibazioa ere handitzen da eta honek etekin hobekak lortzea dakar.

«Tailer honetan parte hartzen duenak bere buruari oparia egiten dio tarte bat hartuz gozamenarako, erlaxatzeko, bizitzako 'samintzen' duten eguneroko 'arazoez' ahaztu eta barre egiteko eta barnean daramagun haurra ateratzeko».

Galdutako barre hori berreskuratu nahi dutenentzat zuzendua dago; norberak duen one-na ateratzen laguntzen du eta, modu horretara, besteekin ba-



Barrea eragiteko modu desberdinak lantzen dituzte tailerrean. HITZA

rrer egiten ikasten da, baina ez besteez.

«Hala ere, irribarretsu, alai eta bizitza positiboki hartzeak ez du esan nahi munduan gertatzen direnez jabetzen ez garenik, baina zerikusi handia du gauzei era batera edo bestera begiratzeak eta arpegi bat edo beste jartzeak», dio Martinek.

Tailerrera joaten direnetatik, %85 emakumeak direla dio Barrearen Tailerreko arduradunak, eta batzaz beste 30-50 urte bitartekoak; hala ere, adin guztientzako tailerrak antolatzen dituzte; haurrentzat eta jubilatuentzat ere bai.

Batean eta bestean ibili ondoren, euskaldunak katalunia-

## Aspaldiko terapia da

Barrea terapia bezala erabilzea ez da gauza berria; duela 5.000 urte baziren gaixoak barrearen bidez artatzen zizuten tenpluak, eta indiar kulturak ere badu pailazo sendagile deiturikoa tribuetako gaixotasunak sendatzeko.

Gaur egun, ospitaleetan ere erabiltzen da terapia hau; Kanada, Ameriketako Estatu Batuak, Alemania, Suitza eta Frantzia ezagutzen dute, eta Espainian ere hasiak dira hainbat ospitaleetan. Barre egitean gorputzeko laurhunen gihar inguru mugitzen ditugu, onurak gorputz osoan nabaritzen direlarik: biriketean, bihotzean, begietan, giltzurrunean, sabelean, gibellean, hesteetan...

Era askotakoak dira, lotsatiak, interesgarriak, kutsakorrak, faltsuak, mehatxuzkoak, benetakoak... eta barre egiteko forma desberdinak ere badira. Barre egiterakoan erabiltzen dugun bokalaren arabera, onurak era batekoak edo besteakoz izango dira:

Ja-rekin barre egiteak, bibrazio bat eragiten du giltzurrunean eta osteoporosia saihesten du. Je eran barre egitean saihesten azpian nabaritzen dugu eta gibelako eta muskuluetako energia askatzen da. Ji-k lepoan sortzen du bibrazioa, bertako tentsioak askatuz eta barizeak saihesten laguntzen du. Jo-rekin, berriz, buruan sortzen da bibrazioa. Zelulitiari aurre egiten laguntzen du. Ju-k biriketean sortzen du bibrazioa eta hesteetako energia askatzen du. ◀

ren pare jartzen ditu Martinek, Barrearen Tailerrak bi herri hauengan sortzen baitu interes handien; lotsatiaren artean gaudela ere ez du ukatzen.

Duela lau urtetik hona, gainera, eskola ere bada, barrearen begiraleak prestatzen dituztelarik. Horretarako 120 orduko iraupena duten kurtsoak antolatzen dira; bost asteburutan burutu daitezke edo uztailla edo irailean hamabost eguneroko ikastaro trinkoetan.

**HITZA, egunero zure etxean jaso nahi baduzu deitu**

**943 30 43 46**

Edozein keza, iradokizun edo kezka argitzeko ere bai



IBILGAILU KLASIKOAK ▶

# Ibilgailu Klasikoen Tolosako X. Nazioarteko Azoka badator

Maiatzaren 29an eta 30ean izango da aurten hamargarren urteurrena betetzen duen erakusketa; jarduera bereziak antolatu dituzte urtemuga dela-eta

IÑIGO TERRADILLOS

Tolosan, urte sasoi honetan ohikoa den bezala, Ibilgailu Klasikoen Nazioarteko Erakusketa egingo da datorren asteburuan, maiatzaren 29an eta 30ean. San Estebango ferialekuan izaten den erakusketak aurten bere hamargarren urteurrena beteko du.

Automobil eta motor klasikoak izango dira ikusgai bertan, eta baita ehun erakusmahai baino gehiagotan pieza eta osagarrien merkatua ere.

Aurtengoak hamar urte betetzen dituela eta, Ibilgailu Klasikoen Elkarteak jarduera bereziak antolatu ditu urteurrena behar bezala burutzeko.

Motor klasikoaren I. Erakustaldia hilaren 29an, larunbatean, izango da, herriko erdialdean, Oria Zirkuitua izeneko. Ez da lehenengo aldia horrelako zer-bait egiten dena. 1940. urtean hasi zen erakustaldi hau egiten eta beranduago, 60. hamarkadan ere berriro ekin zioten. Hamargarren erakusketa honetan, garai hartan burutzen ziren erakustaldiak gogoratzeko asmoz berriro antolatu dute zirkuitua izen eta zirkuitu bera mantenduz. Bi eta lau denborako motorrek hartuko dute parte eta irteera eta helmuga San Frantzisko ibiltokian izango da, Pedro de Tolosa, Nafarroa etorbidea eta Zumalakarregi kaleak igaroko dituztelarik.

## Motoentzako proba berezia

Gerra aurreko motorrentzat mila kilometroko Non Stop erregulartasun proba. Irteera, hilaren 28an, ostiralean, eman-go zaio 9:00etan plaza Zaharretik eta itzulera, berriz, 29an, larunbatean izango da ferialekuan 10:00ak aldera. Donostia, Bilbo, Gasteiz eta Iruña igaroko dituzte proba honetan parte hartzen dutenek. 1946 urtera artekoak diren motoek soilik har dezakete parte.

Rolls Royce automobilaren ehungarren urtemuga dela eta, hauetako batzuk ikusgai izango dira ferialekuan.

Indian K Featherweight moto bat izango da ikusgai. 1916an egin zen AEBetan eta 1918an iritsi zen Iruñera. Gaur egun, motoaren jabea nafarra da.



Horrelako autoak ikusi ahal izango dira Tolosako ferialekuan datorren asteburuan. UNAI URREAGA

Bi denborako motorra duten motoen mende oso bateko erakusketa ere izango da. Gisa honetako motoek izan duten bilakaera ikusteko aukera izango da, 20. hamarkadatik hasita, hamarkada bakoitzeko moto bat zango baita, guztira bederatziko moto izango direlarik.

Prestakuntzaren arloa ere aipatu behar da. Automozioa irakasten duten hiru ikastetxe gonbidatu dituzte erakusketan parte har dezaten. Antzinako motor zatikatua, erreminta karreroak... ikusgai jarriko dituzte eta baita ikus-entzunezko informazioa, muralak eta orri informatiboak ere.

Motorren erakustaldi eta erregulartasun probako parte-hartzaileen artean, afarria eta opari banaketa egingo da Tolo-

sako Oria hoteleko Botarri jarduean hilaren 29an, 21:00etan.

Jarduera berezi horiez gain, ohiko automobil eta motoen erakusketa izango da. Postuen kopurua asko handitu da azken urteetan: lehen edizioan 30 baziren, aurtengoan ehun baino gehiago izango dira. Hauetan, besteak beste, merkatuan aurkitzeko zailak izaten diren pieza eta ibilgailu klasikoak buruzko aldizkari, bilduma eta liburu zaharrak erosteko aukera egoten da.

Ibilgailu Klasikoen Elkarteak 1995. urtean Tolosan I. Ibilgailu Klasikoen Erakusketa antolatu zuenetik, urtetik urtera indarra hartuz joan da. Motorren inguruko erakusketen artean leku egin du, adituek galtzen ez duten zita bihurtu delarik.



Donostiako lehen autoa. HITZA

## EGITARAUA ▶

### MAIATZAK 28, OSTIRALA

**09:00.** Gerra aurreko motoentzat mila kilometroko Non Stop probaren irteera Plaza Zaharrean.

### MAIATZAK 29, LARUNBATA

**09:00-20:00.** Ibilgailu Klasikoen X. Nazioarteko Erakusketak atek irekiko ditu.

**Belta.** Moto klasikoaren I. erakustaldia, Oria Zirkuitua; irteera eta helmuga San Frantzisko Ibiltokian.

**10:00.** Iristen hasiko dira Non Stop probako parte-hartzaileak ferialekura.

### MAIATZAK 30, IGANDEA

**09:00-20:00.** Ibilgailu Klasikoen X. Nazioarteko Erakusketak atek irekiko ditu.

DENDA HAUEK  
Tolosaldeko HITZAREN  
LAGUNTZAILEAK DIRA

Egin itzazu zure erosketak bertan

-Pottoko Haur	-Arri Oinetakoak	-Imen Bitxitegia
-Jantziak	eta Konponketak	-Pressto Tintoreria
-Nerea Lentzeria	-Desgaste	-Oñativia
-Mikel Izagirre	Oinetakoak	Lurrindenda
-Ileapaintzaileak	-Aralar Kirolak	-Elola Altzarik
-Iriarte Lentzeria	-Muebles Garces	-La Vasconia
-Berezi Neurri	-Poxpolin	-Axular Oinetakoak
-Bereziak	Haur Jantziak	-Iratzar Erlojotegia
-Factory	-Oski	-Zumeta
-Elite Kirolak	-Garikano 1815	Elektrogailuak
-Bazar Amiano	Azpiko Arropa	-Arretxe Mertzzeria
-Kopibat	-Amajia Lentzeria	-Ugarte Bitxitendak
-Cid Bitxitegia	-Kiara Bitxitegia	-Bitxilore
-Lizarribar	-Poxpolin	-Juan Luis Bitxitegia
Oinetakoak	Enmarkazioak	-Ezenarro Leihoak
	eta Opariak	-Kanikak arropa
	-Milar Electro-	denda
	Hogar	

HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELARENKIN  
%5\*-eko  
BEHERAPENA IZANGO DUZU ZURE EROSKETAN.  
(Martxoetik ekainera)

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN!

\*Promozio hau ez zaie beste beharapenei gehituko. Eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da.

OTECHI

erakuntzak, s.l.

Promozioa eta eraikuntzak

Bizkaia kalea, 2 - behea  
20400 TOLOSA  
Faxa: 943 69 71 98  
Tel.: 943 67 21 72 - Mug.: 608 77 28 01

## LIZARTZA ▶ POLITIKA

DANI GIBELALDE

Iazko udal hauteskundeetan urtemuga dela eta, azken urteotan Tolosaldean alkate eta zinegotzi modura hautatuak izan diren ezker abertzaleko kide ugari bildu ziren atzo Lizartza-ko udaletxean, «herriaren borondatea errespetatzea eskatzeko». Atzo bildutako batzuk «normaltasunez» ari dira lanean; beste batzuei, berriz, hautatuak izateko eskubidea «ukatu» diete. «Ahotsik gabeen ahotsa eraman nahi izan dugu udaletxe eta diputazioetara, arrazoi batengatik: oinarriko zeregina delako gutxien duena babestea eta bultzatzea, guztiei hitza emanez bazterkerarik gabe. Soilik horrela ulertzen dugu guk instituzioen demokratizazio erabatekoa».

Madrilek ezker abertzalearen ahotsa ezabatu nahi duela, eta, 25 urte eta gero, «euren oinarrietara itzuliz, Euskal Herria salbuespen egoeran» dagoela salatu zuten. Era berean, EAJ, EA, IU eta Aralarrek «politika konbentzionala hutsa egiten duten modua» ikustea mingarria zela erantsi zuten, «beste batzuk autodeterminazioa defendatzeagatik ilegalizatuta eta egurrarekin tratatzen gaituzten bitartean. Are mingarriagoa da ilegalizazioaren ondorioak nola aprobetxatzen dituzten ikustea, nola lapurtzen

# «Herriaren borondatea errespetatzea» eskatu du ezker abertzaleak

Tolosaldean alkate eta zinegotzi izateko hautatu zituzten ezker abertzaleko kideek «salbuespen egoera» salatu dute

dizkioten herriari hiritarren bozkaz aukeratutako zinegotzi eta alkateak». Gainera, alderdi horiek «ezker abertzaletik behin eta berriro iristen zaizkien elkarrizketa eta konponbiderako deien aurrean entzungor» jartzen direla salatu zuten, eta «PP eta PSOE bezalako alderdiekin ilegalizazioaren emaitzen tarta elektorala banatzen» dutela, «putreak bailiran». Ezker abertzalekoak udaletxean egon diren denbora guztian «lana herriaren zerbitzura, bere garapenaren mesedetan» egin dutela aipatu zuten, eta «harro» daudela lortutako emaitzekin. Besteak beste, «zintotasunez jokatzeko, esku-bide nazionalen, langileen, eta herritarren alde, etxebizitza politika eraginkorrek bultzatzea, errepresaliatuei arreta, aurrerapenetan izandako adorea, herri eraikuntzan, norta-



Bailarako ezker abertzaleko hautetsi ugari, atzo Lizartzan. D. GIBELALDE

sun ikurren defentsan eta helburuen zuzentasuna bultzatu» dutela aipatu zuten.

Orain «konponbidearen garaia» dela, «ez baldintza, txan-

tai edo inposaketena; hitza eta erabakia gauzatzera eramango gaituen benetako prozesu demokratiko bat zabalteko garaia» dela gaineratu zuten.

## ANOETA ▶ GAZTETXEA

## Jende ugari Gaztetxeko urtemuga ekitaldietan

Tortila txapelketa, makarroi jatea, trikipotea, afaria, kontzertuak... izan ziren atzokoan

DANI GIBELALDE

Atzo egin ziren Gaztetxeko bosgarren urtemuga dela-eta antolatutako ekitaldirik gehienak. Eguerdian, tortila txapelketan, jende ugari bildu zen, bai eta ondoren egin zen ma-

karroi jatean ere. Arratsaldean trikipotea egin zuten, eta iluntzean afaria Gaztetxean. Gauean, Nekin eta Izeba Pilarren ilobak taldeekin kontzertuak izan ziren. Gaur amaituko dira ekitaldiak, Gaztetxean egingo den mus txapelketarekin.



Tortila txapelketan gazte ugari hartu zuen parte. D. GIBELALDE

## AZOKA ▶

## Eguraldi txarra izan arren salmenta onak izan ziren

Onddo eta ziza ugari ikusi ziren atzoko azokan; apaingarriko landareak ere, asko

PABLO ALBERDI

Eguna euritsu argitu zen atzo, eta horrek eragina izan zuen azokan. Hala ere, salmenta kopurua ez zen baxua izan, eta goiza bukatzerakoa pozik ziren saltzaileak. Produktuen aldetik berritasunak izan ziren. Onddo eta ziza hori ugari zeuden, eta Berdura Plazan apaingarriko landare ugari ikusi genituen. Besteak beste, Lobelia, Kanpanula, Diaszia eta Albaraka aipatu ditzakegu. Baratzetako landareen postuetan salmenta ugari izan ziren. Dirudenez, azken egunetan izan dugun eguraldi onak, eragin ona izan du baratzetan base-ritarren mesederako.

## ATZOKO AZOKA ▶

Zerkausia	merk.	gares.
<b>Bertako produktuak</b>		
Onddo	20	-
Ziza	20	26
Arkumea	3	3,2
Oilaskoa (3 aste)	1,5	-
Babarrun zuria	6	12
Arraultzak	1,3	2,1
Ardi gazta	9	15

Produktu ekologikoak		
Udarea	1,6	3,04
Patata	1,52	-
Tipula	1,7	2,01
Erremolabxa	1,66	-
Letxua	1,01	-
Aza	2,53	4,05

Berdura plaza		
Liliala	1,2	-
Krabelina	4,8	-
Konifera	6	-
Geranioa	2	-
Begonia	1,2	-
Erromeroa	4	6

## IRAGARKI LABURRAK ▶

**Administrari laguntzailea.** Plaza libreak udaletan eta Eusko Jaurlaritzan. Hurrengo inkomporazioak; Zaratuz, Hernani, Beasain, Berrobi, Irun, Erreterria, Bergara eta Oñati. Doako informazioa: 943 444509.

**Harreragile-telefonista.** Plaza libreak Eusko Jaurlaritzan eta

udaletan. Hurrengo inkomporazioak: Hernani, Aretxabaleta. Doako informazioa: 943 444509.

**Ezinduak.** Zure ezintasuna %33tik gorakoa bada, aprobetxatu ezazu aukera. Lortu lanpostua udal eta Eusko Jaurlaritzan. Deituiguzu. Doako informazioa: 943 444509.

**Mantenimendua.** Lorazainak,

garbitzaileak, peoiak, lanpostu libreak: udaletan, Eusko Jaurlaritzan. Doako informazioa: 943 444509.

**Basozainak.** 17 plazako eskaintza. Lan egin gustuko duzun horretan. Lortu lanpostua naturarekin bat eginez lan egin ahal izateko. Doako informazioa: 943 444509.

**Gidariak.** Plaza libreak udaletan,

Foru Aldundian eta Eusko Jaurlaritzan. Doako informazioa: 943 444509.

**Udaltzaintza.** 43 plaza libre. Hurrengo inkomporazioak: Hondarribia, Hernani, Usurbil, Irun, Arrasate, Beasain, Ordizia, Oñati, Azkoitia, Erreterria, Zumarraga. Doako informazioa: 943 444509.

**Gizarte langilea.** Hurrengo inkomporazioak: Beasain, Berrobi, Itsasondo, Altzaga. Udaletan eta Foru Aldundian. Doako informazioa: 943 444509.

**Bigarren Hezkuntza.** Haur Hezkuntza. Plaza libreak. Deituiguzu eta lagunduko dizugu. Doako informazioa: 943 444509.

TOLOSA KUP ▶

# 7-1: Ibarra txapeldun

Plaza Berrian 400 lagun elkartu ziren bazkaltzeko; ondoren, DJak izan ziren



Bi taldeen jarraitzaile ugari bildu ziren Berazubín; argazkian, partida hasi aurrero uneak zelaian. G. AZKUE

## GARAZI AZKUE

**E**guraldia txarra zela esanatu zen atzo eguna, hala ere, bazen eguraldi txarri aurrez aurre begiratu zionik ere, Tolosan festa handia antolatuta baitzuten Tolosa Kup zela-eta.

Goizean goiz jende ugari bildu zen Berazubín: bai zelaian eta baita harmailetan ere. Hamaikak pasatxo ekin zioten jada klasiko bihurtu den Tolosa-Ibarra futbol partidari.

Oooooo!, Aupa Tolosa! Aupa Ibarra!, Uiiiiiii! Gogoz ikusi zuten askok partida, irabazteaz edo galtzeaz gain, herriaren izen ona baitzegoen, nolabait, jokoan. Hala ere, gehienek ez zuten sobera serio hartu ohorearen afera, eta, garagardo batzuk hartzen ere ageri zen ikusle bat baino gehiago. Festak goiz-goizetik ireki zituen begiak.

## Bisitari bitxiak

Partida jokatzeko ari zirela, usatekabeko galanta izan zuten bertaratu ziren guztiak, une horrentanxe jakin baitzuten Batman eta Spiderman tolosarrak direla.

Mundu guztian famatuak, zelaierdian paratu ziren bi heroiak, eta, *Tolosa Ibarra da* zioen kartela kendu eta *Ibarra Tolosako zaborra* zioen beste

kartela jarri zuten aurrekoaren lekuan. Bi heroiaren agertzeak txistuak eta txaloak eragin zituen ikusleen artean.

Baina superheroiek ere ezin izan zuten ekidin bukaeran markagailuak zioena. Eta azkenean, batzuen zoritxarrerako eta besteen zoramenerako, bukatu egin zen partida: 7-1, Ibarraren alde.

Momentuko inpresioak alde batera utzita, poteoari ekin zioten jokalariek eta bertaratu ziren gainerakoek. Gorputzaren beroketa orduantxe hasi zen, bazkarira bitarteko minutuak tabernaz taberna bete zituzten eta. Ondoren, Plaza Berrian elkartu ziren guztiak mahaian esertzeko. Karpa eta guzti jarri zuten antolatzaileek atzoko egunerako, eta, 400 bat lagun bildu ziren karparen azpian. Bazkarian, hojaldre ajuarrieroa, xolomoa patata purearekin eta tarta. Baina festa hasi baino ez zen egin ordu horretarako.

Bazkariaren ondoren, mahaiak eta aulkiak jaso eta dantzaleku bilakatu zuten bai kar-



Plaza Berrian izan zen bazkari jendetsua. G. AZKUE

pa eta baita Abastos plaza ere; DJek jarri zuten arratsaldeko erritmoa. Gauean, berriz, konzertuak THC eta Rudo & Friends Sound System taldeekin.

Eta jarraitzeko gogoz gelditu zirenak ere ez ziren noraezean ibili, Ferialekua, Tolosako *after* garrantzitsua bihurtu zuten,

izan ere, Tolosa Kup festako antolatzaileek eta Nomaklimato eta gainerako talde eta DJek.

Antolatzaileak «oso gusturara» zeuden egunak eman zuenarekin. «Eguraldia izan da okerrena, baina oso giro polita egon da egun guztian zehar» aipatu zuten antolatzaile batek. Parte-hartzaileek ere bai.

## TELEFONOAK ▶

### LARRIALDIAK

▶ 112

- Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- Anoetaidea.** Medikua: 65 23 39
- Asteasu.** Medikua: 69 24 23
- Berastegi-Elduain.** 68 33 61
- Bidegoian.** Medikua: 68 11 34
- Ibarraldea.** Osasun eb: 672411
- Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29
- Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20
- Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- Lizartza.** Medikua: 68 20 77
- Tolosa.**
  - ▶ Anbulatorioa, larriald:461111
  - ▶ San Esteban: 00 68 00
  - ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
  - ▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
  - ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
  - ▶ DYA: 67 25 36
  - ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
  - ▶ Ertzaintza: 53 88 20
- Villabona-Aiztondo.**
  - Anbulatorioa: 00 69 70
  - Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

### GARRAIOAK

- ▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
- ▶ Taxia: 67 04 20
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

### EUSKALTEGIAK

- ▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
- ▶ Arramele-AEK: 67 12 14
- ▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

### GUARDIAKO FARMAZIA

**Gaur.** Etxebeste J.M. Gernikako arbola,3. Telf.: 943 65 10 40. O. Erbiti, (Leitza): 112. **Bihar.** Azpiroz M.L. Amaro zuzunera, 9. Tel.: 943 67 51 18. Larraia (Leitza). 112

### TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18. [tolosaldean\\_public@tolosaldeko-hitza.info](mailto:tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info)  
**Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33. [tolosa@tolosaldeko-hitza.info](mailto:tolosa@tolosaldeko-hitza.info)  
**Villabona-Aizt.** 687 41 00 22. [villabona\\_aiztondo@tolosaldeko-hitza.info](mailto:villabona_aiztondo@tolosaldeko-hitza.info)  
**Anoetaidea.** 687 41 00 22 [anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info](mailto:anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info)  
**Ibarraldea.** 687 41 00 32. [ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info](mailto:ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info)  
**Alegialdea.** 687 41 00 34. [alegialdea@tolosaldeko-hitza.info](mailto:alegialdea@tolosaldeko-hitza.info)  
**Leitzaldeko.** 687 41 01 18. [leitzaldeko@tolosaldeko-hitza.info](mailto:leitzaldeko@tolosaldeko-hitza.info)

## iragarki laburrak ▶

### ALOKAIRUAN

**Familia.** Ingeles familia batek etxe bat behar du alokairuan abuztuan, Tolosan edo Ibarran. 943 67 00 52/943 67 12 75.  
**Orexa.** Orexako taberna alokatzen da. 943 68 20 29.  
**SALGAI**  
**Setter.** Setter arrazako zakurkumeak salgai. Telf.: 943 67 45 56 (20:00-22:00).

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira ▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorian agurrak...

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko maiatzaren 25a, igandea ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN  
DUTEN ERAKUNDEAK

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Abitur, Alegia, Alkoa, Alzo, Ametzeta, Ansoa, Balaizana, Berastegi, Etulain, Hernialde, Iturriz, Irujo, Larrat, Leizaburu, Lizartza, Orendain, Orosa, Tolosa, Villabona, Zuzurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia



Eusko  
Jaurkitza.  
Kultura Saila



GAURKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

16

hotzera

11

BIHARKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA  
(zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Amezketza.** Buruntzunzingo mendi aterpeko bazkideen urteko batzarra. Mendi aterpean bertan, 10:00etatik aurrera.

**Alegia.** Elizabarrutiko Gaixoen Lourdeserako Erromesaldiarekin bat eginik, Alegiako parrokiak autobus bidaia antolatuta du Lourdesera.

**Larraul.** Lore azoka izango da asteburu honetan ere plazan. 10:30etik eguerdira arte.

**Leitza.** Kultur Astearen baitan, 10:00etan II. Ehoziri Lanzaleen Topaketa; 12:00etan herri kirolak, 14:30ean herri bazkaria eta jarraian txaranga. Bihar, 20:00etan Jon Arrexeren 7 kolore diapositiba emanaldia zinemari.

**Orendain.** Helduentzako gimnastika saioak antolatuta dituzte. Bihar Erretore etxean, 16:00etatik 17:00etara.

**Tolosa.** Abraham Olanoren omenezko Nazioarteko VIII. Klasiko Zikloturista. Olarrain auzoan, 08:30ean. Bi ibilbide egongo dira, Goierri barrera 66 kilometrokoa, eta, Goierri, Sakana, San Miguel eta Leitza artekoa 114 kilometrokoa.

**Tolosa.** Autobus bereziak Santa Klaratik Asuncion klinikara. Bihar, 7:45etik 13:15era eta 16:45etik 20:45era. Ordu erdiero, laurdenetan eta laurden gutxietan.

**Villabona.** Zudaire-Lokiz-Kanpezu santikruz bitartekoak



## Olinpiada txikien finalak Berazubín

**TOLOSA** ▶ Berazubín bildu ziren atzo Tolosaldeko 21 ikastetxetako ikasle, Olinpiada txikietako finalak jokatzeko. Atletismoko probak egin zituzten gaztetxoek haien gurasoen begiradapean. Guztira, 1.000 ikasle inguru bildu ziren Berazubín. Aurrez, herri kirolak, pilota, xake edota badminton norgehiagokak egin zituzten. Hurrengo astean, berriz, Uzturre alpinoko elkarteak antolatutako Uzturreko igoeran hartuko dute parte gaztetxoek. G. AZKUE

egingo dituzte gaur Aizkardi mendi elkarteak kideek eta gainerako mendizaleek.  
**Zuzurkil.** Zuzurkilgo biatloia. 10:00etan Pedro Mari Otaño plazatik.

### ERAKUSKETAK

**Alegia.** Alejandro Gonzalezen

margoak ikusgai Jubilatuko Elkartearen hilaren bukaera arte.

**Tolosa.** Maribi Iparragirre anotoarrak bere artelanak ditu ikusgai Saikin tabernan hilaren bukaera arte.

**Tolosa.** Anjel Cuervo bidaiari eta abenturazale tolosarraren argazkiak ikusgai dira Aranburu Jauregian ekainaren 12a arte.

Asteartetik larunbatera dago zabalik (astelehenera eta jai egunetan izan ezik), 17:30etik 20:30era.

**Tolosa.** Javier Soto ordiziarrek eta Jesus Lopez Zulueta beasaindarrak haien margolanak dituzte ikusgai Lanbroa tabernan hilaren bukaera arte.

**Tolosa.** Faustino Aranzabalen margolanak ikusgai Aranburu Jauregian. Uztailaren 3a arte, asteartetik larunbatera (astelehenera eta jaiegunetan izan ezik) dago zabalik, 17:30etik 20:30era.  
**Zuzurkil.** Sükrü Karakus margolari turkiararen erakusketak Atxulondo kultur etxean maiatzaren 30a arte.

### JAIK

**Anoeta.** Gaztetzaren V. urtemuga. Mus txapelketa, 16:00etan Gaztetzaren. Gaur amaituko dira urteurrenaren harira antolatutako ekitaldiak.

### MUSIKA

**Irura.** Kultur Astearen baitan, mezzaren ondoren, Irurako haurren eta Eresargi eta Eresargi Txiki abesbatzen kontzertua. Jarraian, hamaiketako.

**Tolosa.** Udal Musika Eskolak antolatuta, Musikaria 2004-ko jarriko dizkio musika doinuak hurrengo asteari. Egunero kontzertuak izango dira.

### ZINEMA

**Tolosa.** *Giro inesperado* filma izango da Leidoro aretoan. Gaur, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean. Bihar, 19:30ean eta 22:30ean eta asteartean (ikuslearen eguna), 19:30ean eta 22:30ean.

## ZORION AGURRAK ▶

Urtebetetzea, jaiotza, ezkontza, jaunartzea, urrezko ezteiak, agurrak... hemen argitaratzeko etorri HITZAren egoitzara; ekarri argazkia



**URTE ASKOAN**  
Mikel Suso (Ibarra). Bihar 8 urte. Zorionak Mikel. Iñaki eta senide guztien partetik.



**URTE ASKOAN**  
Zuriñe Amatriain (Tolosa). Bihar 13 urte. Zorionak aita, ama eta etxeko partetik.



**LEHENENGO JAUNARTZEA**  
Nagore Zabala Luluaga (Ibarra).

Ondo pasa matraka! Zure aita, ama eta Gorkaren partetik.



**URTE ASKOAN**  
Lidar (Lizartza). Gaur 2 urte. Zorionak denon partetik.



**URTE ASKOAN**  
Gorka eta Aitor Sorraín. 8 eta 6 urte. Zorionak bikote eta muzu handi bana Manex eta gurasoen partetik.



**URTE ASKOAN**  
Maria Bezunartea Barasoain (Leitza). Gaur urteak betetzen ditu. Zorionak eta muzu handi bat Itsoa, Haizea eta Pabiren partetik.




**URTE ASKOAN**  
Unai Altuna Esnaola (Alegia). Bihar urtebete! Zorionak eta muzu bat gurasoen, eta bereziki Gorkaren partetik.



**URTE ASKOAN**  
Egoitz Aburuza (Bidania). Zorionak PELOTARI. Gaur 8 urte. Ama, aita eta Goretiren partetik.



**URTE ASKOAN**  
Mireia Seguroa (Asteasu). Bihar 4 urte. Zorionak eta muzu handi bat. Aita, ama eta Itssoren partetik.



**URTE ASKOAN**  
Zorionak Eñaut. Gaur 4 urte. Ondo pasa!